"eLiburutegia" PLATAFORMARAKO LIBURU ELEKTRONIKOEN ETA AUDIO LIBURUEN LIZENTZIAK EROSTEKO HORNIDURA-KONTRATUAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, 2026. URTEA

XEDEA

Honako agiri honen xedea da EPUB formatuko liburu elektronikoen eta audio liburuen lizentziak erosteko baldintza teknikoak definitzea. Lizentziok Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatutako **eLiburutegia** plataforman banatuko dira. Aipatu plataformak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako bazkideei eduki digitalak *online* mailegatzen dizkie.

LIZENTZIAK ESKURAGARRI JARTZEKO BALDINTZAK

Argitaletxeak edukiak jatorrizkoak direla bermatuko du, baita edukion gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak dituela ere. Ez edukiok ez horiek garatzeko erabilitako erremintek ezin dute inolako araudi, akordio, eskubide, interes edo hirugarrenen eskubiderik urratu.

Zentzu horretan, kontratua formalizatzeko, esleipendunak katalogoko obren Espainiako merkatuan ustiapen-eskubide esklusiboak dituela dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Adierazpen horrek Liburutegi eta Lege Gordailu Zerbitzuaren esku jarriko du eLiburutegirako erosiko diren liburu elektronikoak eta audio liburuak aukeratzeko.

eLiburutegia ZERBITZUAN LIZENTZIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

<u>Erabilera-baldintzak:</u>
Baimen bakoitzaren erabilera:

- Baimen bakoitzak 25 erabiltzaile izango ditu, gehienez ere; hau da, lizentzia bakoitzeko, liburu elektroniko edo audio liburu bera behin bakarrik irakurri ahal izango du erabiltzaile batek. Behar bereziak sortuz gero, aldiberean irakurtzeko aukera eskatuko da.
- Baimenek ez dute iraungitze-datarik, 25. erabiltzailera iristean iraungiko dira.
- Liburu elektronikoen maileguek 21 eguneko iraupena izango dute, gehienez ere, erabiltzaileak irakurtzeko. Hala ere, epea amaitu baino lehen itzuli ahalko dira.

<u>Edukiaren lagina:</u>

- Edukiaren zati bat, gutxi gorabehera liburu elektroniko bakoitzaren % 10 edo lehenengo kapitulua, "lagin" gisa deskargatu ahal izango da, mailegutzat hartu gabe.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

MIGUEL ANGEL DOMINGO SANTAMARIA - 16300797F

Firmado digitalmente por MIGUEL ANGEL DOMINGO SANTAMARIA - 16300797F
Fecha: 2026.03.09 11:34:02 +01'00'

Miguel Ángel Domingo Santamaría

Liburutegien eta Lege Gordailuaren Zerbitzuburua